




# Panorama demografikoa

## AURKEZPENA

Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) 1980ko hamarkadatik dihardu estatistika-eragiketak egiten, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriarekin lotutako fenomeno demografikoei buruzko informazioa eskuratzeko, baita biztanleen adin- eta sexu-egituraren nondik norakoak emateko ere. Hala, jaiotzen estatistika, heriotzen estatistika eta migrazio-mugimenduen estatistika egiten ditu, besteak beste.

Bestalde, data jakin batean biztanleriaren egitura kontabilizatzen eta deskribatzen duten eragiketak ere egiten ditu: 1981, 1991, 2001, 2011 eta 2021 biztanleria- eta etxebizitza-zentsuak; 1986ko biztanleen udal-eroldaren berrikuntza; 1996ko, 2006ko eta 2016ko biztanleria- eta etxebizitza-estatistikak; 2001 eta 2020 bitarteko biztanleen udal-estatistika. Era berean, ezkontzen estatistikak, nahiz eta biztanle kopuruetan eragin zuzenik izan ez, azalpenak ematen ditu ugalkortasunaren bilakaerarekin lotuta. Aurrekoez gain, ugalkortasunaren eta ezkontza-tasen indizeak ere baliatu dira, 2021eko Inkesta Demografikotik hartuta.

Panorama demografikoaren helburua zera da, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria-egituraren bilakaeraren ikuspegia ematea eta bilakaera horretan eragin duten fenomeno demografikoak aztertzea, eragiketa horietako bakoitzak eskainitako informazioa baliatuta. Lan honek beste estatistika-indize bati ere heltzen dio, lurraldeetako eta eskualdeetako indize demografikoak biltzen dituen: Gertakari demografikoak aztertzeko adierazleak, alegia.

1980ko hamarkadatik hona, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriak bilakaera kontrastatuak izan ditu hilkortasunean, jaiotza-tasan eta migrazio-mugimenduetan, eta horiek guztiek eragin dute, populazioaren bolumenean ez ezik, adinaren eta sexuaren araberako banaketan ere. Nabarmenezkoak dira, alde horretatik, 1990eko hamarkadako erdialdera arteko ugalkortasunaren jaitsiera ikusgarria eta 2000. urtetik aurrerako etorkinen etorrera jendetsua. Aztertutako aldiaren azken urtean COVID-19aren pandemia sartu da, eta lau fenomeno demografikoen bilakaera nahasi du, batzuk nabarmenago.

Fenomeno demografikoen analisia ez da amaitzen honako lan honekin. Aitzitik, ugalkortasunaren, hilkortasunaren, migrazio eta ezkontza-tasaren gaineko informazio sakonagoa nahi izanez gero, eskura dago Eustaten webgunera, datu zehatzagoak eskatzeko aukera ere ematen duena.

Josu Iradi Arrieta  
Zuzendari nagusia

## AURKIBIDEA

|                                                     |    |
|-----------------------------------------------------|----|
| SARRERA .....                                       | 3  |
| 1. POPULAZIOA.....                                  | 4  |
| 1.1. BILAKAERA, EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA .....    | 4  |
| 1.1.1. LURRALDEKA.....                              | 4  |
| 1.1.2. ESKUALDEEN ETA UDALERRIEN ARABERA.....       | 6  |
| 1.2. EGITURAREN BILAKAERA, ADINEN ARABERA .....     | 10 |
| 1.3. BIZTANLEEN JAIOLEKUA.....                      | 13 |
| 2. JAIOTZAK .....                                   | 16 |
| 2.1. JAIOTZEN BILAKAERA.....                        | 16 |
| 2.2. UGALKORTASUNAREN ADIERAZLEAK .....             | 18 |
| 2.3. AMEN EZAUGARRIAK.....                          | 20 |
| 2.4. ERDITZEEN EZAUGARRIAK.....                     | 23 |
| 3. HERIOTZAK.....                                   | 25 |
| 3.1. HERIOTZEN BILAKAERA .....                      | 25 |
| 3.2. BIZI-ITXAROPENAREN BILAKAERA .....             | 27 |
| 3.3. BILAKAERA, HERIOTZAREN ERAGILEEN ARABERA ..... | 29 |
| 4. EZKONTZAK .....                                  | 33 |
| 4.1. EZKONTZEN BILAKAERA .....                      | 33 |
| 4.2. EZKONTZEN EZAUGARRIAK .....                    | 35 |
| 4.3. EZKONTIDEEN EZAUGARRIAK .....                  | 37 |
| 5. MIGRAZIOAK .....                                 | 40 |
| 5.1. MIGRAZIO-MUGIMENDUAK ETA –SALDOAK .....        | 40 |
| 5.2. KANPOKO MIGRAZIOAK.....                        | 42 |
| 5.3. BARRUKO MIGRAZIOAK.....                        | 45 |
| 5.4. MIGRAZIOAREKIN DUEN LOTURA.....                | 46 |
| 6. ONDORIOAK.....                                   | 48 |

## SARRERA

Espazio-eremu jakin bateko biztanleriaren bolumena ez da aldaezina denboran zehar; izan ere, ugalkortasunaren, hilkortasunaren eta biztanleria horren mugikortasunaren konbinazioek eragiten diote. Demografiaren helburu nagusietako bat zera da, aldaketa horiek zergatik gertatzen diren ulertzea, inguruko egitura sozial eta ekonomiko bertsuko gizarteekin alderatuta. Biztanleriak ez dira ezberdin hazkunde-erritmoagatik bakarrik, baita adinaren arabera osaketagatik ere; alegia, haur, gazte, heldu, zaharren pisu erlatiboagatik.

Txosten honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle-kopuruaren bilakaera eta adin-egitura aztertuko dira, 1981etik 2021ra, oraingo eta lehengo hilkortasun, jaiotza-tasa eta migrazio-mugimenduen ondorio gisa; alegia, biztanleria denbora-une bakoitzean berritzen, ugaltzen edo murrizten duten fenomenoek arabera. Aldi berean, biztanleriaren adin eta sexuaren arabera egiturak berak eragiten die jaiotza-tasari eta hilkortasunari; eta, immigrazioen eta emigrazioen arteko aldea (positiboa zein negatiboa) kontuan hartuz gero, erlazio anitzeko sistema ateratzen zaigu: faktoreek emaitza baldintzatzen dute sistema honetan baina, era berean, emaitzak ere baldintzatzen ditu faktoreak.

Gizarte baten bilakaera demografikoaren ikerketa beharrezkoa da iragana ulertzeko eta etorkizuneko joera demografikoz hipotesiak egiteko, baina oso zaila da hipotesiekin asmatzea, sistema harreman anizkuna denez —eta, gainera, beste zenbait baldintza tartekatzen dira, ekonomikoa, esaterako, zeinak asko eragiten baitie migrazio-fluxuei—, batez ere denboran oso aurrera egiten badugu.

Analisi hau egiteko, Eustatek biztanleriaren bolumen eta egiturari eragiten dieten fenomeno demografikoez berak burututako estatistika-eragiketetatik lortutako datuak erabili ditu, bai autonomia-erkidego osoari erreparatuta, bai geografia-eremu txikiagoetan (lurraldeak, eskualdeak eta udalerriak). Azterketaren denbora-eremuari dagokionez, biztanleriaren bolumena eta egitura aztertzeko, bi Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuen arteko aldia hartu da kontuan: 1981eko martxoaren 1etik 2021eko urtarrilaren 1era. Jaiotzak, heriotzak, ezkontzak eta tankerako fenomeno demografikoak aztertzeko, 42 urtetik gorako aldia hartu da —hau da, 1976 eta 2020 arteko tarte—, bilakaeraren ideia zabalagoa eman ahal izateko. Migrazioei buruzko datuak 1988an hasten dira, urte horretan argitaratu baitzuen Eustatek migrazio-mugimenduen estatistika.

Kontuan izan behar da 2020an COVID-19aren pandemiak eztanda egin duela; izan ere, gobernuaren neurriekin, geldiarazten saiatzeko, ondorio ekonomikoak ez ezik, fenomeno demografikoak ere kaltetu ziren. Batzuk zuzenean, hala nola hilkortasuna, eta beste batzuk zeharka, gizarte-mugimenduak murriztean, hala nola ezkontzak eta migrazioak. Jaiotza-tasak ere izan zuen eragina, baina ez espero bezala.

# 1. POPULAZIOA

Biztanleen udal-estatistikari esker, urtero jarraipena ematen zaie zentsuek, biztanleen udal-eroldaren eguneratzeek eta biztanleriari eta etxebizitzetarako buruzko estatistikek biztanleriaren gainean emandako kopuruei. Gainera, demografia-gertakarien (berezko mugimenduen eta migrazioen) intentsitateari esker, konparatu liteke zer ekarpen egiten dien Euskal Autonomia Erkidegoko eremu espazialen (lurralde historikoen, eskualdeen, udalerrien...) zenbakizko aldakuntzei.

Beraz, helburua zera da, EAEko udalerrietan errolden arteko aldian dagoen zuzenbideko biztanle kopuruari buruzko datu eguneratuak urtero ezagutaraztea, erreferentzia gisa urte bakoitzeko urtarilaren 1a hartuta.

Analisi hau behar bezala ulertu ahal izateko, kontuan izan behar da bertan aztertzen ditugun biztanle kopuruaren aldaketak lurralde-eremuen taldekatze-mailaren arabera antolatu ditugula, maila txikienetik handienara: Euskal Autonomia Erkidegoa, lurralde historikoak, eskualdeak eta udalerriak, betiere neurriaren arabera taldekatuta.

## 1.1. BILAKAERA, EREMU GEOGRAFIKOEK ARABERA

### 1.1.1. LURRALDEKA

2021eko urtarilaren 1ean, Euskal AEn bizi ziren biztanle guztietatik, 2.193.199 biztanle, % 15 ziren Araban, % 52,2 Bizkaian eta % 32,8 Gipuzkoan. 1981eko martxoaren 1ean, 2.141.809 biztanle zeuden, eta lurraldeen arabera proportzioak zertxobait desberdinak ziren; horrela, Araba biztanleriaren % 12 baino ez zen, Bizkaia % 55,5 eta Gipuzkoa % 32,4. 40 urte hauetan biztanleria osoaren bolumena, eta lurraldeka, aldatu egin da, eta argi eta garbi bi epealdi bereizi dira: 1981etik 2001era eta 2001etik 2011ra; 2012tik aurrera, berriz, bilakaera alderraiagoak gertatu dira, hamarkada honen lehen erdian krisi ekonomikoak eta ondorengo susperraldiak eraginda, migrazioei eragin baitzien neurri handi batean.


Biztanleen kopuru handiek izan duten bilakaera aztertzean, zera ikusten da, EAEko biztanleen kopuruak etengabe egin zuela behera 1980ko hamarkada hasieratik 2001. urtera arte, baina beherapena moteltzen joan zela aldi horren amaieran. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko zentsuarterteko hazkunde-tasak joera aldatu du 2001 eta 2011 bitarteko azken tarte horretan. Aztertu diren zentsu arteko lehenengo lau aldietan (1981-1986, 1986-1991, 1991-1996 eta 1996-2001), tasa horiek -% 0,1 eta -% 0,3 artean ibili ziren. Hala, 2001-2006 aldian tasak kopuru positiboak izan zituen: % 0,4ko hazkundeak. 2006-2011 aldian, berriz, % 0,5eko igoera izan zuen. Aldi horretako biztanleriaren hazkunde-joera hori 2012. urtera arte luzatu da; urte horretan 2.181.590 biztanle izatera iritsi zen, eta hortik aurrera inbertitu egin zen, eta 2016ra arte zentsu arteko hazkunde-tasa -%0,05ekoa izan zen. 2017an, biztanleria handitu egin da berriro, 2020ra iritsi arte, eta Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen gehieneko historikoa lortu da. 2021ean biztanleriaren bolumenak behera egin du berriro, pandemiak fenomeno demografikoetan izan dituen ondorioen ondorioz.

1981etik 2001aren bukaerara, Euskal Autonomia Erkidegoak 59.222 biztanle galdu ditu; hau da, biztanleriaren % 2,8. Aldiz, 91.446 biztanle gehiago erregistratu zituen (% 4,4) 2001 eta 2011 bitartean. Beraz, azken 10 urteetan nabarmen berreskuratu du aurreko 20 urteetan galdutako biztanleen kopurua. 2011 eta 2016 artean, Erkidegoak 2.147 biztanle galdu zituen, baina aldi horretan gorabeherak izan ziren, urte horietan krisi ekonomiko handia gertatu baitzen. 2016tik 2020ra, galera hori berreskuratzeaz gain, irabazia hiru aldiz handiagoa izan da: 27.825 egoiliar. 2020ko osasun-krisiak, fenomeno

demografikoetan dituen ondorioekin, 2021eko urtarrilaren 1ean 6.512 biztanle gutxiago izatea eragin du.

Gainerako lurralde historikoetan ez bezala, Araban etengabe gehitu zen biztanleria kopurua; hau da, aztertu diren zentsuarterko aldi guztietan biztanle gehiago izan zituen 2001 bitartean; hain zuzen, 1981etik 2001eko azarora 28.537 pertsona gehiago erregistratu ziren, % 11ko hazkundea, alegia. Denbora-tarte berean, Bizkaiak eta Gipuzkoak biztanleak galdu dituzte. Bi horien artean, Bizkaia nabarmentzen da, 66.641 lagunekoko galera izan baitu; hau da, biztanleria osoaren % 5,6. Gipuzkoak urte horietan 21.118 biztanle galdu ditu, hots, biztanleria osoaren % 3 baino gehiago.

### 1. grafikoa. Zentsuarterko hazkunde-tasaren bilakaera, lurralde historikoen arabera (%) 1981/03/01 – 2021/01/01



2001tik aurrera, Bizkaiak eta Gipuzkoak biztanle gehiago izan dituzte, baina azken lurralde horrek bakarrik konpentsatu du azken 20 urteetako galera (29.334 pertsonarekin). Bizkaiak 29.769 biztanle gehiago ditu, baina hori aurreko bi hamarkadetan galdutako kopuruaren erdia baino gutxiago da. Arabak, 10 urte hauetan, aurreko 20 urteetan baino biztanle gehiago irabazi ditu (32.343).

Nolanahi ere, egoera aldatu egin da 2011tik aurrera. Nahiz eta Arabak 2.600 biztanle baino gehiago irabazi 2016ko azaroaren 1era arte, 1981etik izan den zentsuarterko hazkunderik apalena da. Hala, 2013 eta 2014 artean ere biztanleak galdu zituen 2012arekin alderatuta. Bizkaiari dagokionez, 12.800 biztanle gutxiago dira, eta Gipuzkoak, berriz, 6.909 biztanle gehiago ditu. Azken datu horri esker, EAE osoko biztanleen galera ez da horrenbestearainokoa.

2016tik 2021era hiru lurraldeetan izan dira biztanleria-irabaziak, nahiz eta Bizkaiak izan duen biztanleria-gehikuntzarik txikiena (% 0,3), eta Arabak 6.300 biztanle irabazi ditu (% 1,9) bost urte hauetan. Gipuzkoak hazkunde handiagoa izan du zifra absolutuetan (6.768 pertsona), baina Araban baino txikiagoa da termino erlatiboetan (% 1).

1981 eta 2021 bitartean gertatutako gorabehera horiekin guztiekin, Euskal AEko biztanleriak 51.390 pertsona baino ez ditu irabazi, hau da, 40 urte hauetan % 2,4 gehiago, urteko batez besteko % 0,06ko hazkundearekin. Hori ez dator bat estatu espainiarreko biztanleriaren bilakaerarekin; izan ere, aldi horretan ia % 26 hazi zen, eta urteko batez besteko tasa % 0,6koa izan zen. Arabak ehuneko horiek gainditu ditu, % 28 hazi baita, 72.339 pertsona gehiago, urteko % 0,6ko batez besteko tasarekin; Gipuzkoak ere izan du biztanleria-hazkundera aldi horretan, baina askoz ere apalagoa: % 3,5eko hazkunde-ehunekoa eta urteko % 0,1eko tasa. Bizkaiko biztanleriaren bilakaera negatiboak, urte hauetan % 3,8ko jaitsierarekin, hau da, 45.155 biztanle gutxiagorekin, Erkidegoko biztanleriaren hazkundera hain txikia izatea eragin du 1981 eta 2021 artean. Esan behar da 2020ko urtarrilaren 1etik 2021eko urtarrilaren 1era hiru lurraldeetako biztanleria murriztu egin dela: Bizkaiko 4.921 biztanletik Arabako 20 biztanlera, eta Gipuzkoako 1.571 biztanletik gora.

### 1.1.2. ESKUALDEEN ETA UDALERRIEN ARABERA

Eskualde mailan behera eginez, 2021ean hiriburuak barne hartzen dituzten hiru eskualdeek Erkidegoko biztanleria osoaren bi herenak biltzen dituzte; horrela, Arabako Lautadan Euskal AEko biztanleriaren % 12 biltzen da, Donostialdean % 15 eta Bilbo Handian % 39. 1981ean, lehenengoak % 9 baino ez zuen osatzen; Bilbo Handiak, berriz, Euskal AE osoaren % 44 biltzen zuen, eta Donostialdeak, berriz, gaur egungo ia ehuneko bera zuen.

1981etik 2001era bitartean ikusitako zentsu arteko hazkunde-tasek erakusten dute gure erkidegoko hogeitaz eskualdeetatik zortzik soilik zituztela tasa positiboak. Arabako Lautada, Gorbeialdea eta Plentzia-Mungia nabarmentzen dira portaera positiboko eskualdeetan, % 0,5etik gorako tasekin; aitzitik, Debabarrena dago, % -1eko zentsu-arte-ko hazkunde-tasarekin.


2001etik 2011ra bitartean eskualde bakar batek, Debagoienak, izan zuen biztanleria-jaitsierarik. Añana eta Gorbeialdea dira zentsuen arteko % 2tik gorako hazkunde-tasak dituzten eskualdeak, eta Debabarrena, Bilbo Handia eta Markina-Ondarroa eskualdeek, berriz, ez dute % 0,3tik gora.

Hala ere, 2011 eta 2021 artean bost eskualdek egin dute behera biztanlerian, Bilbo Handiak % 1,8 gutxiago, 15.364 biztanle gutxiago. Kopuru erlatiboetan, Plentzia-Mungia da 10 urte hauetan biztanle gehien irabazi dituen eskualdea, % 7,9 eta 4.317 biztanle gehiagorekin.

Azken bost urteetan, biztanleria galdu duten lau eskualde erregistratu dira, baina oso maila baxuetan; izan ere, gehien galtzen duen eskualdea, Debagoiena, % 0,24 da, eta beste hirurak, Bidasoa Beherea, Arabako Kantaurialdea eta Bilbo Handia, ez dira % 0,15era iristen. Aitzitik, bost eskualdek % 1eko hazkunde-portzentajea gainditu dute: Arabako Mendialdea (% 6,4), Añana (% 5,5), Plentzia-Mungia (% 4), Gorbeialdea (% 3,1) eta Arabako Lautada (% 2,1) nabarmentzen dira.

2021eko urtarrilaren 1ean Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten 251 udalerriek portaera desberdina izan dute kontuan hartuko ditugun bi aldietan, esposizioa oso luzea ez izateko. 1981eko eta 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuaren artean, 106 udalerriek zentsu arteko hazkunde-tasa positiboak zituzten; 2001 eta 2021 artean, berriz, 200 udalerriek izan zituzten biztanleria-hazkundeak. 2011 eta 2021 artean, 174 udalerriek izan zituzte tasa positiboak.

2. grafikoa. Zentsuarterko hazkunde-tasak, eskualdeka (%). 1981/03/01 – 2021/01/01



Tasen jaitsieren eta igoeren intentsitateak ere desberdinak dira bi aldietan. 1981etik 2001era, gehien hazi zen udalerria Burgelu izan zen (% 106), eta biztanle gehien galdu zituen Olaberria (% -36,4). 2001etik 2021era Erribera Beitian % 125 hazi zen biztanleria egoiliarra, eta beste muturrean Arabako beste udalerri bat zegoen, Harana, % -28,4ko beherapenarekin. Biztanle gutxiko udalerriak dira guztiak, eta bertan bizi direnen bolumenak aldaketa txiki bat izan duenez, hazkunde erlatiboak handiak dira.


Udalerriak, 2021eko urtarrilaren 1eko biztanleriaren arabera, bost kategoría hauetan taldekatu dira:

1. udalerri handiak, 100.000 biztanletik gorakoak;
2. udalerri ertainak, 40.001-100.000 biztanle artekoak;
3. udal ertain-handiak, 20.001-40.000 biztanle artekoak;
4. udal ertain-txikiak, 10.001-20.000 biztanle artekoak;

5. udalerri txikiak, 10.001 biztanletik beherakoak.

Udalerri-talde guztiek galdu zuten biztanleria 1981 eta 2001 artean, eta bigarrena nabarmendu zen, % 6ko jaitsierarekin, 24.019 pertsona gutxiagorekin. Gainerako taldeetan, jaitsiera-maila txikiagoa izan zen: hirugarrena (% 5,3). Hurrengo aldian, 2001etik 2021era, udalerrien bigarren taldea izan ezik, biztanleria hazi egin zen, eta aurreko aldiko biztanleria-defizita konpentsatu zuten. Hori oso nabarmena da 10.000 biztanletik beherako taldean, azken aldian % 14,1 hazi baitzen.

**3. grafikoa. Zentsuarterko hazkunde-tasak, udalerriaren tamaina aintzat hartuta (%).  
1981/03/01 – 2021/01/01**



Udalerri batzuk kategoriaz aldatu dira, biztanleak galdu edo irabazi dituztelako. Kasurik nabarmenenak Barakaldo izan zen, 2001eko zentsuan 100.000 biztanle baino gutxiago izan baitzituen. Errearteria eta Sestao bigarren kategoriatik hirugarrenera pasatu ziren, Laudio eta Pasaia hirugarrenetik laugarrenera, eta Ondarroa eta Legazpi, berriz, laugarrenetik bosgarrenera. Beste udalerri batzuk kategoriaz igo dira, Zarautz adibidez, laugarren kategoriatik hirugarrenera igaro baita. Amurrio, Arrigorriaga, Oiartzun eta Sopela bosgarren kategoriatik laugarrenera pasatu dira.


Aldaketa erlatiboari dagokionez, 1981etik 2021era bitartean % 1etik gorako hazkundeak izan zuten 10.000 biztanletik gorako udalerriak honako hauek izan ziren: Sopela (% 1,9), Etxebarri (% 1,4), Mungia, Zarautz eta Hondarribia (bakoitza % 1); aitzitik, urteko jaitsiera erlatibo handiena, % -0,5etik gorakoa, Sestaok (% -1), Eibarrek (% -0,8), Basaurik (% -0,7), Pasaia eta Portugaleten (% -0,6 bakoitzak) eta Arrasatek (% -0,5) izan dute.

Hiru lurralde historikoetako hiriburuak dira 100.000 biztanletik gorako hiru udalerri bakarrak, eta Erkidegoko biztanleria osoaren % 35 baino zertxobait gehiago biltzen dute. Zentsu arteko hazkunde-tasa positiboa izan da Gasteizen eta Donostian aztertutako aldi osoan, baina ez da Bilbon gertatu. 1981az geroztik, hiru udalerriek gora egin dute 20.001 pertsonatan, baina Gasteizen eta Donostian izandako gehikuntzaren ondorioz izan da, 58.300 eta 12.860 pertsonako gehikuntzarekin hurrenez

hurren, eta Bilbon 51.159 biztanle gutxiago daude. 2011 eta 2021 urteen artean, Bilbok 7.896 pertsona galdu zituen, Gasteizek ia pertsona berak irabazi zituen (7.884 biztanle) eta Donostiak 300 baino ez.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2021eko urtarrilaren 1ean, 40.001 eta 100.000 biztanle artean dituzten sei udalerri, 1981ean Erkidegoko biztanleria osoaren % 22,8 ziren; 2021ean, berriz, % 16,8ra igo ziren, hau da, 24.019 biztanle galdu zituzten. Beraz, berrogei urte hauetan zentsu arteko hazkunde-tasa negatiboa izan da, -%0,22koa. Portugaletetik, Santurtzik eta Basaurik behera egin dute etengabe 1981 eta 2021 artean, 32.660 pertsona gutxiagorekin. Getxok % 0,9ko urteko hazkundea izan zuen 1981 eta 2001 artean, eta 2001etik 2021era tasa negatiboa izan zuen, -%0,4rekin, baina saldo osoa positiboa da. Barakaldori kontrakoa gertatzen zaio: lehenengo hogeitau urteetan tasa negatiboa izatetik (% -0,9) positiboa izatera igaro da hurrengo bi hamarkadetan (% 0,23), baina aldi osoko saldoa negatiboa da (% -0,4). Irun da 1981etik 2021era biztanle kopuruak gora egin duen udalerri bakarra (% 0,3). Azken hamar urteetan, talde horretako udalerri guztiek galdu dute biztanleria, 8.256 pertsona gutxiago, eta horien herena baino zertxobait gehiago Getxokoak dira.

#### 4. grafikoa. Zentsuarteako hazkunde-tasak, udalerrien arabera (%). 1981/03/01 – 2021/01/01



20.001 eta 40.000 biztanle artean dituzten hamar udalerriak Erkidegoko biztanleria osoaren % 12,5 dira, eta 6.113 pertsona galdu dituzte 1981etik 2021era; beraz, 1981etik 2001era bitarteko beherakada ez du hurrengo aldiko hazkundeak konpentsatu. 40 urte horietan errolden arteko hazkunde-tasa positiboak izan ziren: Zarautz (% 1), Leioa eta Durango (% 0,9), Galdakao (% 0,2) eta Hernani (% 0,1). Aitzitik,

Sestaok, Eibarrek, Arrasatek, Errenterriak eta, neurri txikiagoan, Erandiok 35.565 biztanle galdu dituzte guztira, eta horietatik 13.478 Sestaok.

Euskal AEko biztanleriaren % 15,5 10.001 eta 20.000 biztanle arteko 23 udalerrian bizi da. Pasaia nabarmentzen da, % -0,6ko errolda arteko hazkunde-tasa negatiboarekin; aldiz, % 1etik gorako tasa positiboekin Sopela (% 1,9), Etxebarri (% 1,4), Mungia (% 1,1) eta Hondarribia (% 1) ageri dira. Udalerri-kategoria horrek 24.655 biztanle irabazi ditu 1981etik 2021era bitartean; horregatik, urteko aldaketa bateratua % 0,2koa da. Categoria horren barruan, hamabost udalerrik handitu dute biztanleria, eta 42.085 biztanle gehiago dituzte, hau da, hasierako biztanleriaren % 23,8; aldiz, behera egin duten zortzi udalerriek 17.430 biztanle galdu dituzte (% 12,7).

Azkenik, gainerako 209 udalerriek 10.000 biztanle baino gutxiago dituzte, eta 2021ean Erkidegoko biztanleria osoaren % 20 biltzen dute; 40 urte lehenago, berriz, % 18,3 ziren. Horietatik 141ek errolda arteko hazkunde-tasa positiboak dituzte, eta 68k zeinu negatiboa. 1.000 biztanletik gorako udalerrien artean, Erribera Beitia nabarmentzen da, % 3,3ko urteko tasa positiboarekin, eta, ondoren, Dulantzi (% 2,8), Arabakoak biak; % 2 eta % 2,5 bitartean, Irura (% 2,6) eta Astigarraga (% 2,1) daude Gipuzkoan, Zigoitia (% 2,5) Araban eta Bakio (% 2,2) Bizkaian. 10.000 biztanletik beherako udalerrien multzoak 46.100 biztanle irabazi zituen 1981etik 2021era. Udalerrien multzo horretatik 65.457 biztanle gehiago izan ziren, hau da, biztanleriaren % 26,6 1981ean, eta beherakada izan zuten udalerrien multzoak 19.357 biztanle gutxiago izan zituen, hau da, hasierako biztanleriaren % 13,2.


## 1.2. EGITURAREN BILAKAERA, ADINEN ARABERA

Euskal AEko biztanleriaren egiturari dagokionez, adin-talde handien arabera banaketaren bilakaerak beherakada nabarmena eta etengabea erakusten du adin gazteenetan, eta adin helduagoetan, berriz, gora. 1981 eta 2021 bitartean, 65 urte eta gehiagoko biztanleen kopurua bikoiztu egin zen, % 9,2tik % 23ra. Erritmo horretan gazteen geruzak ere lekua galtzen du: 1981ean hiru pertsonatik batek 20 urte baino gutxiago zituen, 2021eko urtarilaren 1ean % 18,2 baino ez zegoen adin horietan, 65 urte eta gehiagokoek baino ia 4 puntu gutxiago. Askoz ere nabarmenagoa izan da adinekoenen hazkundera, 85 urte eta gehiagokoena; izan ere, horien kopurua 6 aldiz biderkatu da 38 urte hauetan, guztizkoaren % 4,1era iritsiz.

2021ean ematen diren proportzioak ez dira berdinak Europako herrialdeetan, batez ere adin gazteenen taldean, horietan txikiena baita. Hala, EBko 27 herrialdeetan adin-talde hori % 20,2ra iristen da. Era berean, 65 urte eta gehiagoko taldearen ehunekoa Italiak bakarrik gainditzen du, non proportzioa % 23,5ekoa den.

Adineko biztanleriaren hazkunde hori ez da homogeneouski gertatu Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeetan. Bi muturretan nabarmentzen dira Arabako Mendialdea eta Plentzia-Mungia eskualdeak: lehenengoak 65 urte eta gehiagoko biztanleriaren % 26,2 du, eta Markina-Ondarroakoa da % 24,4rekin; Plentzia-Mungian, aldiz, biztanleria zaharrenak guztizkoaren % 18 baino ez du.

### 5. grafikoa. EAEko biztanleriaren piramideak 1981 eta 2021




Salbuespen batzuk izan ezik, erkidego osoan baino adinekoen ehuneko handiagoak dituzten eskualdeak bat datoz azken urteotan biztanleria jaitsi edo oso hazkunde txikia izan dutenekin. Arabako Mendialdea eta Markina-Ondarroaz gain, Debagoiena eta Debabarrena, Bilbo Handia eta Gernika-Bermeo daude. Bestalde, Erkidegoko batezbestekoaren azpiko ehunekoak dituzten eskualdeek izan dituzte biztanleria-gehikuntzak aztertutako aldian. Kasu nabarmenena Plentzia-Mungiarena da, lehen esan bezala, baina aipatzekoak dira, halaber, Gorbeialdea, Arabako Lautada, Urola Kosta, Durangaldea eta Bidasoa Beherea.

Añanaren kasua oso esanguratsua da; izan ere, 1981etik 2021era biztanlerian gehien hazi den eskualdeetako bat izan arren, 65 urte eta gehiagoko pertsonen proportzio handia du. Antzeko kasua gertatu da, maila txikiagokoa bada ere, Arabako Errioxako eskualdean. Biek izan dituzte adinekoen proportzio handiagoak aldi horretan guztian, eta horrek esan nahi du biztanleriaren hazkundeak ez duela beti bermatzen adinen egitura egokitzea.

1981ean, Euskal AEn, 65 urte eta gehiagoko 0,3 pertsona zeuden 16 urtetik beherako bakoitzeko, Espainia osoan zegoena baino txikiagoa (0,4), eta Europako herrialdeen erdia baino gutxiago (Suedia eta Alemania, esaterako). Bi herrialde horiek 0,8ko erlazioa zuten (Belgika eta Danimarka, 0,7). Baina 2021ean erlazio hori 1,6ra igaro zen, eta maila hori Italiak soilik gainditu zuen; Suediak, Belgikak eta Danimarkak harreman altua zuten 1981ean, baina soilik handitu dute, 64 urtetik gorako pertsona batean kokatzeko 16 urtetik beherako bakoitzeko.


**6. grafikoa. Adin-talde handien hazkunde-tasak, eskualdeen arabera (%).**  
**1981/03/01 – 2021/01/01**



1981ean 0,8tik gorako erlazioa zuten eskualdeek (Añana eta Arabako Mendialdea) ere harreman hori areagotu egin zuten, 2021ean azkenekoa 65 urte eta gehiagoko 2,1 pertsonara iritsi arte 16 urtetik beherako bakoitzeko. Azken urte horretan, 1 inguruko erlazioa zuten bi eskualdeek (Gorbeialdea, Urola Kosta eta Plentzia-Mungia) Euskal AEko batez bestekoa baino zifra handiagoak zituzten 1981ean.

1981ean 16 udalerri zeuden 16 urtetik beherako 5 pertsona edo gehiago 64 urtetik gorako bakoitzeko; horien artean Ermua, Etxebarri, Lasarte-Oria eta Anoeta nabarmentzen ziren, eta 7 edo gehiagoko harremana zuten. Aitzitik, urte horretan 35 udalerrik zuten gazte bakoitzeko adineko bat edo gehiago, eta Ibarrangelun, Meñakan, Gizaburuagan eta Arrietan 1,5etik gorakoa zen harremana. 2021ean, 15 urtetik beherakoen eta 64 urtetik gorakoen arteko harremanak behera egin du, eta soilik bi udalerrik dute bi gazte baino gehiagoko harremana adineko bakoitzeko, Irurak eta Baliarrainek, oso tamaina txikiak baitituzte. Beste muturrean, Haranak 5,4 adineko ditu gazte bakoitzeko; Añanak 4,6 eta Lagranek 4,5; horiek ere biztanle gutxiko udalerriak dira.

**7. grafikoa. 65 urteko eta hortik gorako pertsonen kopurua, 16 urtetik beherako biztanle bakoitzeko, udalerriaren arabera. 2021/01/01**




Hiru udalerritan, Ermuan, Lasarte-Orian eta Laudion, adinaren araberako egituraren bilakaeraren ondorioz, 1981ean biztanleria gaztea adinekoen gainetik nabarmen egotetik, 15 urte eta gutxiagoko bakoitzeko 64 urtetik gorako ia 2 pertsona izatera igaro da. Hala, Ermuak gazteen % 67 galdu zuen 1981 eta 2021 artean, eta % 450 hazi zen adinekoen kopurua; Lasarte-Orian % 58 gutxiago eta % 411 gehiago izan zen, eta Laudion % 63 gutxiago eta % 299 gehiago, hurrenez hurren.

### 1.3. BIZTANLEEN JAIOLEKUA

2021eko urtarilaren 1ean, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren biztanleen % 28,7 kanpoan jaio dira, eta kolektibo horren barruan, hiru biztanletik bat baino gehiago, zehazki % 39,2, atzerrian jaiotakoak dira.

Euskal AEtik kanpo jaiotako pertsonen ehunekoa egonkor mantendu da 2001etik, baina aldaketak izan dira horien jatorrian. Aldi horretan, ia 9 ehuneko-puntutan hazi da atzerrian jaio den Euskadiko biztanleria; aldiz, jaitsi egin da Euskal Autonomia Erkidegoan bizi eta Estatuko gainerako herrialdeetan jaio den biztanleria, % 25,3tik % 17,82ra.

### 8. grafikoa. Biztanleak, jaiotako kontinentearen arabera (%), 2021/01/01



Gure erkidegoan bizi diren pertsonen % 11,2 atzerrian jaio dira, Estatu osoan baino ehuneko txikiagoa (% 15,5). Euskal AEn biztanle gehien ematen dituzten herrialdeak, hurrenkeraren arabera, Maroko (% 11,4), Kolonia (% 10,9), Errumania (% 6,4) eta Nikaragua (% 6,1) dira.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Gaztela eta Leonek ekarri zuen pertsona gehien (% 6,9), Extremadurak (% 2,1) eta Galiziak (% 1,8). Beste muturrean, Balear Uharteetan jaiotakoak guztizkoaren % 0,04 baino ez dira.

55 udalerrik atzerrian jaiotako pertsonen proportzioa Euskal AE osokoa baino handiagoa da; 19 Arabakoak dira eta, horietatik, 5ek % 15 gainditzen dute, guztiak Arabako Errioxan kokatuak. Hala ere, ehuneko handienak dituzten bost udalerriak Euskal AEn sakabanatuta daude: Navaridas (ia % 20ra iristen da), Ordizia (% 18,5), Leza (% 17,5), Berriatua (% 17), Mañueta (% 16,5), Markina-Xemein (% 15,8), Lantziego (% 15,7) eta Oion (% 15,3).

Aitzitik, atzerrian jaiotako biztanleen ehunekoa % 2,5 baino txikiagoa duten lau udalerri daude: Kripan, Araban; Garai, Bizkaian; Mutiloa eta Aduna, Gipuzkoan. Biztanle gutxiko udalerriak dira, laurek batera 1.218 biztanle baino ez baitituzte.

Hiru hiriburuetan atzerrian jaiotako biztanleen ehunekoa Euskal AE osokoa baino handiagoa da: Gasteizek du proportzio handiena (% 14,4), Bilbok % 13,7 eta Donostiak % 12,3.

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo jaiotako biztanleen adinari dagokionez, alde nabarmena dago lekuaren arabera; hala, atzerrian jaiotakoen batez besteko adina 37,8 urtekoa da, eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoena, berriz, askoz handiagoa, 64,9 urtekoa.


## 2. JAIOTZAK

Jaiotzen Estatistikak eta Heriotzen eta Ezkontzen Estatistikak Biztanleriaren Mugimendu Naturala osatzen dute. Estatistika horren antzinatasunari esker (1861az geroztik dago horren berri), garai horretan izan diren aldaketa demografikoak eta bilakaera ezagutu daitezke. Biztanleriaren mugimendu naturalak, migrazio-mugimenduekin batera, biztanleriaren gorabeherak zehazten ditu.

### 2.1. JAIOTZEN BILAKAERA

1976ko 41.100 jaiotzetatik, jaiotzen beheranzko joera hasi zen Euskal AEn, eta 1994ra arte mantendu zen, orduan 15.248 jaiotza izan baitziren, hau da, % 63ko jaitsiera. Hortik aurrera, 1995ean jaiotza-tasaren gorakada txiki baina etengabea hasi zen, 2008an 21.315 jaiotza izan ziren arte. Azken hamabi urteetan jaiotzen kopuruak behera egin du berriro, gorabeherekin, eta 14.739 jaiotza izan dira 2020an, % 30,8 gutxiago. 2020ko jaiotza-tasan % 4,4 baino ez da jaitsi aurreko urtearen aldean, beste une batzuetan baino gutxiago; beraz, badirudi ez dela eraginik izan COVID-19aren pandemiak eragindako fenomeno demografiko horren portaeran, urteko azken bi hilabeteetan izan ezik.

9. grafikoa. Jaiotzen tasa gordinen bilakaera (%). 1976-2020



Euskal Autonomia Erkidegoan, jaiotza-tasa gordina % 6,7koa izan da 2020an. 60ko hamarkadan, zifra hori % 20koa baino handiagoa zen, eta Espainiako batezbestekoaren gainetik zegoen; orduetik, jaitsiera handiagoa izan da 70eko hamarkadaren bigarren erdian eta 80ko hamarkadaren lehen erdian, eta jarraitua izan da 1995era arte, urte horretan tasa % 7,3koa izan baitzen. 1996tik gora egiten hasi zen, 2008ko egoerara iritsi arte, non mila biztanleko 9,9ko tasara iritsi baitzen, Espainiako batezbestekoa (% 9,7) edo Europako beste herrialde batzuetakoa baino altuagoa, hala nola Italia (% 8,5), Portugal (% 8,4) edo Alemania (% 12,6ko tasarekin), baina Frantzia (% 12,6ko tasa) edo Irlanda (15,7 jaiotza 1.000 biztanleko tasa) bezalako herrialdeetakoa baino baxuagoa. 2009az geroztik, tasa 2020ra arte jaitsi zen,

Italia bakarrik aldera daitekeen mailara, % 6,8rekin, eta Alemaniak ere gaintitzen du, 2 puntu baino gehiagoz.

### 1. taula. Bizirik jaiotakoak eta jaiotzen tasa gordinak (%), lurraldeka. 1976-2020

|          | E. A. E        |      | Araba          |      | Bizkaia        |      | Gipuzkoa       |      |
|----------|----------------|------|----------------|------|----------------|------|----------------|------|
|          | Jaiotako umeak | Tasa | Jaiotako umeak | Tasa | Jaiotako umeak | Tasa | Jaiotako umeak | Tasa |
| 1976     | 41.100         | 19,7 | 4.809          | 20,1 | 22.924         | 19,8 | 13.367         | 19,6 |
| 1977     | 38.806         | 18,5 | 4.634          | 19,0 | 21.754         | 18,6 | 12.418         | 18,1 |
| 1978     | 35.657         | 16,8 | 4.560          | 18,4 | 19.987         | 17,0 | 11.110         | 16,1 |
| 1979     | 31.835         | 15,0 | 4.163          | 16,5 | 18.356         | 15,5 | 9.316          | 13,5 |
| 1980     | 28.812         | 13,5 | 3.917          | 15,3 | 16.569         | 13,9 | 8.326          | 12,0 |
| 1981     | 27.255         | 12,7 | 3.710          | 14,3 | 15.419         | 13,0 | 8.126          | 11,7 |
| 1982     | 25.670         | 12,0 | 3.436          | 13,2 | 14.142         | 11,9 | 8.092          | 11,6 |
| 1983     | 23.920         | 11,1 | 3.374          | 12,8 | 13.092         | 11,0 | 7.454          | 10,7 |
| 1984     | 22.411         | 10,4 | 3.108          | 11,7 | 12.426         | 10,5 | 6.877          | 9,9  |
| 1985     | 20.970         | 9,8  | 3.008          | 11,2 | 11.582         | 9,8  | 6.380          | 9,2  |
| 1986     | 20.094         | 9,4  | 2.693          | 10,0 | 10.981         | 9,3  | 6.420          | 9,3  |
| 1987     | 18.593         | 8,7  | 2.572          | 9,5  | 10.148         | 8,6  | 5.873          | 8,5  |
| 1988     | 18.021         | 8,5  | 2.577          | 9,5  | 9.724          | 8,3  | 5.720          | 8,4  |
| 1989     | 17.024         | 8,0  | 2.389          | 8,8  | 9.024          | 7,7  | 5.611          | 8,2  |
| 1990     | 16.361         | 7,8  | 2.290          | 8,4  | 8.724          | 7,5  | 5.347          | 7,9  |
| 1991     | 16.228         | 7,7  | 2.276          | 8,3  | 8.557          | 7,4  | 5.395          | 8,0  |
| 1992     | 16.250         | 7,7  | 2.221          | 8,0  | 8.587          | 7,5  | 5.442          | 8,0  |
| 1993     | 15.801         | 7,5  | 2.239          | 8,1  | 8.203          | 7,1  | 5.359          | 7,9  |
| 1994     | 15.248         | 7,3  | 2.024          | 7,2  | 7.991          | 7,0  | 5.269          | 7,8  |
| 1995     | 15.322         | 7,3  | 2.082          | 7,4  | 7.879          | 6,9  | 5.361          | 7,9  |
| 1996     | 15.987         | 7,6  | 2.249          | 8,0  | 8.148          | 7,2  | 5.590          | 8,3  |
| 1997     | 16.325         | 7,8  | 2.226          | 7,9  | 8.333          | 7,4  | 5.766          | 8,6  |
| 1998     | 16.113         | 7,7  | 2.249          | 7,9  | 8.216          | 7,3  | 5.648          | 8,4  |
| 1999     | 16.787         | 8,1  | 2.321          | 8,2  | 8.599          | 7,6  | 5.867          | 8,7  |
| 2000     | 17.316         | 8,3  | 2.487          | 8,8  | 8.818          | 7,9  | 6.011          | 8,9  |
| 2001     | 17.647         | 8,5  | 2.436          | 8,5  | 9.040          | 8,1  | 6.171          | 9,2  |
| 2002     | 18.133         | 8,7  | 2.491          | 8,6  | 9.372          | 8,4  | 6.270          | 9,2  |
| 2003     | 19.267         | 9,2  | 2.694          | 9,2  | 9.806          | 8,8  | 6.767          | 9,9  |
| 2004     | 19.594         | 9,3  | 2.809          | 9,5  | 9.996          | 8,9  | 6.789          | 9,9  |
| 2005     | 19.715         | 9,3  | 2.792          | 9,3  | 10.122         | 9,0  | 6.801          | 9,9  |
| 2006     | 20.043         | 9,4  | 2.918          | 9,6  | 10.087         | 8,9  | 7.038          | 10,2 |
| 2007     | 20.596         | 9,6  | 3.027          | 9,8  | 10.416         | 9,1  | 7.153          | 10,4 |
| 2008     | 21.315         | 9,9  | 3.209          | 10,3 | 10.861         | 9,5  | 7.245          | 10,4 |
| 2009     | 20.928         | 9,7  | 3.224          | 10,2 | 10.540         | 9,2  | 7.164          | 10,2 |
| 2010     | 21.159         | 9,7  | 3.346          | 10,5 | 10.598         | 9,2  | 7.215          | 10,3 |
| 2011     | 21.180         | 9,7  | 3.429          | 10,7 | 10.687         | 9,0  | 7.064          | 10,0 |
| 2012     | 20.533         | 9,4  | 3.293          | 10,3 | 10.342         | 9,0  | 6.898          | 9,8  |
| 2013     | 19.118         | 8,8  | 3.099          | 9,7  | 9.732          | 8,5  | 6.287          | 8,9  |
| 2014     | 19.378         | 8,9  | 3.277          | 10,3 | 9.740          | 8,5  | 6.361          | 9,0  |
| 2015     | 18.851         | 8,7  | 3.159          | 9,8  | 9.331          | 8,2  | 6.361          | 9,0  |
| 2016     | 18.240         | 8,4  | 3.074          | 9,5  | 9.151          | 8,0  | 6.015          | 8,4  |
| 2017     | 17.076         | 7,8  | 2.961          | 9,1  | 8.522          | 7,5  | 5.593          | 7,8  |
| 2018     | 16.090         | 7,4  | 2.683          | 8,2  | 7.940          | 7,0  | 5.467          | 7,6  |
| 2019     | 15.418         | 7,0  | 2.565          | 7,8  | 7.720          | 6,8  | 5.133          | 7,2  |
| 2020 (a) | 14.739         | 6,7  | 2.397          | 7,2  | 7.318          | 6,1  | 5.024          | 6,9  |

(a) Behin-behineko tasak

Tasarik altuena Araban dago (% 7,2), ondoren Gipuzkoan (% 6,9) eta, azkenik, Bizkaian (% 6,1eko tasarekin), 2020an Euskal Autonomia Erkidego osoan lortutakoaren azpitik. Jaiotza-tasaren bilakaera, 1976tik 2020ra bitartean, desberdina izan da hiru lurraldeetan, guztizkoaren aldean. Hala, Gipuzkoak jaiotza-tasa nahiko desberdina izan du; izan ere, 1988ra arte, mila biztanleko jaiotza-tasak Erkidegokoak baino txikiagoak ziren, baina hurrengo urte guztietan handiagoak izan dira, baita 1994an ere, tasarik txikiena izan zenean, jaiotza-tasa osoa baino 5 hamarren handiagoa baitzen. Bizkaiak aldiaren lehen lau urteetan bakarrik izan ditu erkidegoak baino tasa altuagoak, eta hortik aurrera, beste lurraldeekiko aldea nabarmena izan da. Arabak, oro har, Euskal Autonomia Erkidego osoak baino tasa altuagoak izan ditu, nahiz eta 1994an eta 2020an minimora iritsi zen, % 7,2rekin.

Tasa horiek zenbaki absolutuetara ekarrita, esan nahi du 1976an izandako 41.100 jaiotzetatik 14.739 izan direla 2020an, hau da, jaiotzak % 64 murriztu direla. Bizkaiak bere gain hartu du Erkidegoko jaiotzen jaitsieraren % 60, ez bakarrik bere populazio-tamainagatik; gainera, 1976tik 2018ra bitarte portzentajezko beherapena % 65,4koa izan zen. Gipuzkoak berrogei urte hauetan izan duen beherakada Euskal AEko mailaren inguruan kokatu da; Arabak, berriz, jaitsiera askoz ere apalagoa izan du, % 44,2koa.

1976tik 2020ra bitarte, jaiotza-kopuruak behera egin du eskualde guztietan: % 25 Gorbeialdean eta % 33 Arabako Errioxan, % 70 Bilbo Handian, % 68 Debabarrenean eta % 67 Markina-Ondarroan. Horrek eskualdeetako biztanleriaren tamainaren bilakaerarekiko erlazioa islatzen du.

Azkenik, 2020ko pandemia-egoerari dagokionez, badirudi horrek eragina izan duela urteko azken hilabeteetan, jaiotzak % 15,1 jaitsi baitira abenduan eta % 12,4 aurreko urteko hilabete berberekin alderatuta, urte osoko jaitsiera (% 4,4) baino askoz ere handiagoa.

## 2.2. UGALKORTASUNAREN ADIERAZLEAK

Informazio hori guztia emakumeko batez besteko seme-alaba kopurua bezalako indize batera murrizten badugu, esan daiteke Euskal AEko ugalkortasuna balio baxuetan dagoela gure inguruko herrialdeetan erregistratzen denarekin alderatuz gero. 2020an seme-alaben batezbestekoa 1,20koa da, 1975ean batez beste lortutako 2,67tik eta belaunaldi-ordezkapenerako behar diren 2,1etik oso urrun. Indize txikiena Bizkaiak du, 1,15ekoa; Arabak 1,29koa eta Gipuzkoak 1,26koa. Nazioarteko testuinguruan, ugalkortasun-indizea Italiako mailaren antzekoa da (1,24 seme-alaba), baina Europako batezbestekoaren azpitik dago (1,5), eta Frantzia (1,83 seme-alaba) eta Suediatik (1,67) oso urrun; are gehiago, Alemaniakoa baino txikiagoa ere bada emakume bakoitzeko 1,53 seme-alaba izan baititu, 2002an, 1,34 izan zirela.

Datu berriago horiek oinarri hartuta, aurreikustekoa da emakumeen % 72k gutxienez seme-alaba bat izatea. Horrek esan nahi du emakumeen laurdenek baino gehiagok ez dutela seme-alabarik, % 43k gutxienez bi seme-alaba izatea eta % 6k hirugarren bat izatea. Ildo horretan, hirugarren mailako edo maila handiagoko ugalkortasunaren jaitsiera % 81ekoa da 1976. urtearen aldean.


Eustatek Euskal AEko eskualdeetako ugalkortasunak 1981 eta 2011 artean izan duen bilakaerari buruzko informazioa ere ematen du; izan ere, urte horretatik aurrera ezin da maila horretako indize demografikoak lortu. Ugalkortasunak Erkidego osoaren joera bera izan du; izan ere, 1981 eta 1996 bitartean behera egin zuen intentsitate handiagoko edo txikiagoko eskualde guztietan, eta 1996tik 2011ra susperraldia gertatu zen, baina nahiko ahula. 1981ean eskualde bakar batek ere ez zuen 2,1

seme-alaba baino gehiago emakume bakoitzeko. Hurbilen zegoena Arabako Errioxa zen, 2,05; Debabarrenak, berriz, 1,25 seme-alaba baino ez zituen emakume bakoitzeko.

1996ra arte ugalkortasunaren jaitsiera hain nabarmena izan zen, non soilik zazpi eskualdek gainditzen baitzuten seme-alaba bat emakume bakoitzeko, Urola Kostak zuen indizerik altuena, 1,2 besterik ez bazen ere. Ondoren Tolosaldea eta Plentzia-Mungia zeuden, 1,1ekin. Urte horretan Añanak aztertutako aldi osoko ugalkortasun txikiena zuen, 0,66 seme-alaba emakumeko. 2011. urtean, eskualde guztiek zuten batez beste seme-alaba bat baino gehiago emakume bakoitzeko.

30 urte hauetan, hiru eskualdek % 34 inguru murriztu dute ugalkortasuna: Bilbo Handiak, Arabako Lautadak eta Donostialdeak, hiru lurraldeetako hiriburuak bertan baitaude. Azpimarratzekoa da Gipuzkoako eskualdeetan, Donostialdean izan ezik, ugalkortasunaren jaitsiera Euskal AEko batezbestekoa baino txikiagoa izan dela; Debabarrena eta Tolosaldea ere suspertu egin dira, % 17,6 eta % 7,3, hurrenez hurren.

#### 10. grafikoa. Bilakaera, batez besteko seme-alaba kopurua emakumeko. 1976-2020



Inkesta Demografikoaren bidez egiten den bezala, emakumeen belaunaldien ugalkortasunaren azterketa da adieraz dezakeena belaunaldi horiek bizitza emankorrean zehar izan dituzten seme-alabekin ordeztzen diren ala ez, azken ondorengotza ere esaten baitzaio. 2021ean egindako inkestak erakusten du 40ko hamarkadaren bigarren erdian jaiotako emakumeak direla belaunaldi-ordezkapena lortu zuten azkenak, hau da, 2,1 seme-alaba izan zituzten batez beste. Ondorengo emakumeen belaunaldien azken ondorengotza 1,3 seme-alabaraino jaisten joan zen 1976 eta 1980 artean jaiotako emakumeentzat, azken horientzat ugalkortasun-historia osotzat jo baitaiteke.

Europako ia herrialde guztietan ikusi da 1940tik aurrera jaiotako emakumeen azken ondorengotza oro har murriztu egin dela, eta 60ko hamarkadaren amaieran jaiotako belaunaldiak ez dira belaunaldi-

ordezkapenera iritsi, oso anbizio handiko familia-politika duten herrialdeetan izan ezik, hala nola Frantzia, Norvegia edo Suedia, baina 1960an jaiotako euskal emakumeen azken ondorengotzak Alemanian (1,61) edo Italian (1,70) baino maila baxuagoa du belaunaldi horietarako (1,53 seme-alaba emakumeko).


Azken belaunaldien batez besteko amatasun-adina zaharrenen antzekoa da, 75 urte edo gehiago dituztenena, baina azken kasu horretan hirugarren eta ondorengo seme-alabak guztizkoaren ia % 40 ziren, eta 2021ean 40 eta 50 urte bitarteko emakumeen artean hirugarren eta ondorengo seme-alabak % 8 besterik ez ziren. Azken belaunaldietan, lehen haurra jaiotzean, batez besteko adina 32 urte ingurukoa da, eta zaharrenetan, 28 urte ingurukoa.

2021ean 40 urte baino gutxiago dituzten emakumeen belaunaldien azken ondorengotza ez dirudi berreskuratuko denik; izan ere, Inkestan adierazi dutenez, bizitzan zehar izatea espero duten seme-alaben kopurua 1,3ra baino ez da iristen batez beste, eta 2001 eta 2005 artean jaiotakoak nabarmentzen dira, 1,1 haur izatea besterik ez baitute aurreikusten.

## 2.3. AMEN EZ AUGARRIAK

Azken urteetan jaiotza-tasa murrizten lagundu duen faktoreetako bat izan da amatasunaren adina pixkanaka atzeratu izana. Amen adinaren arabera banaketa eta aurreko hamarkadetan ikusitakoa oso desberdinak dira. 2020an talderik ugariena 34 urtetik gorako emakumei dagokie, baina 90eko hamarkadaren amaierara arte 25 eta 29 urte bitartekoek gainditzen zituzten, eta 80koetan, baita gazteenek ere, 20 eta 24 urte bitartekoek.


11. grafikoa. Jaiotzen bilakaera, amaren adina aintzat hartuta (%). 1986-2020



2020an seme-alabak izan zituzten emakumeen % 79,5ek 30 urte edo gehiago zituen. Talderik ugariena 30-34 urteko emakumeena da, jaiotza guztien % 35. Bestalde, amen herenak 35 eta 39 urte bitartean ditu, eta 30 urtetik beherakoak, berriz, % 20,5 baino ez. Amen batez besteko adina 33 urte izan zen 2020an, 1981ean baino 4,4 urte gehiago, eta batez besteko adin handiko herrialdeetan ere dezente handiagoa, hala nola Italian (32,2 urte), Portugalen (31,6 urte) edo Alemanian (31,3 urte), horiek ere ugalkortasun txikia baitute.


2001az geroztik, 25 eta 34 urte bitarteko ama-adinen taldeetan jaiotzak % 39 jaitsi dira, batez ere 30 urtetik beherakoetan, eta horien artean % 44,3 gutxiago jaio dira. Aitzitik, 35 urte eta gehiagoko amengandiko jaiotzak % 33,3 gehiago izan ziren aldi horretan, eta 39 urte baino gehiagoko amenak hiru aldiz gehiago. 2007tik 2009ra, 25 urtetik beherako amengandiko jaiotzek gorakada txiki bat izan dute, eta ondorengo urteetan ere eutsi egin zaie, ugalkortasun handiagoa duten etorkin gazteen ondorioz.

**12. grafikoa. Ezkontzatik kanpoko jaiotzen bilakaera (%). 2002-2020**



Ezkontzaz kanpoko jaiotzen proportzioak goranzko joera handia izan du azken urteetan. Denbora gehiago hartzen badugu erreferentziatzat, Euskal AEn ezkondu gabeko bikoteen seme-alabak % 1,5 ziren 1975ean, % 7,7 1990ean, eta zifra hori % 15,2ra iritsi zen 2000n, baina hamar urte geroago % 32,8ra igo zen eta jaiotza guztien % 46,9ra igo zen 2020an.

**13. grafikoa. Ezkontzaren barruko jaiotzen banaketa, ezkontzaren iraupenaren arabera (%) 2020**




Ezkontza barruko jaiotzetatik, heren bat baino gehiago hirugarren urteurrena baino lehen gertatzen dira, eta % 24,2 hirugarren eta laugarren urteen artean. Horrek esan nahi du ezkontzaren barruko jaiotzak zertxobait aurreratu direla; izan ere, 2001ean, ezkontzaren hiru urte bete baino lehen jaiotakoak % 28,5 ziren, eta egoera hori indartu egiten da 7 urte ezkondu ondoren izandako jaiotzekin: 2001ean % 20,7 ziren, eta 2020an % 18,3ra jaitsi da.

Euskal AEn 2020an izan ziren jaiotza guztien % 25,4 atzerriko amengandik jaiotakoak izan ziren; ehuneko hori 2001. urtekoa (% 3,5) baino askoz handiagoa izan zen. Araban jaio ziren guztien % 35,3; Bizkaian eta Gipuzkoan % 26,8 eta % 28, hurrenez hurren. Gainera, ama atzerritarrek gazteago dituzte seme-alabak; izan ere, % 37,2 30 urte baino gutxiagorekin gertatzen da, Espainiako nazionalitatea duten amen % 10,8aren aldean. Ama guztien batez besteko adina 33 urtekoa izan zen; batezbesteko hori 34,3 urtera igo zen nazionalitate espainiarra zutenen artean, eta 31,1 urtera iritsi zen atzerriko nazionalitatea zuten amen artean. Gainera, jaiotza-tasa askoz ere handiagoa da: ‰ 22,9koa da, eta espainiar nazionalitatea duten amen tasa ‰ 5,2koa.

Ama atzerritarren jaiotzen % 46,6 amerikarren artean gertatzen da, baina emakume atzerritar guztien % 60,8 dira. Egoera hori ez dator bat afrikar nazionalitateko amen egoerarekin (jaiotzen % 29,8), baina emakume atzerritarren % 15,3 dira eta, horien artean, % 59,8 marokoar nazionalitateko amak dira.

**14. grafikoa. Jaiotzen bilakaera, amaren nazionalitatea kontuan hartuta. 2001-2020**




## 2.4. ERDITZEEN EZAUGARRIAK

Ugalkortasun txikiaren eta amatasunerako batez besteko adin gero eta handiagoaren ondorioz, emakumeen ondorengotza-kopurua nabarmen murriztu da. 2020an, jaiotzen % 13 bakarrik zen amak izandako hirugarren edo ondorengo semea, eta 1978ko ehunekoarekin alderatuz gero (% 24,9), esan nahi du jaiotza-ordena horiek % 78,4 jaitsi zirela 42 urte horietan. Nabarmenezkoa da 90eko hamarkadan eta 2000ko lehenengo bost urteetan hirugarren eta ondorengo jaiotzak % 6 baino ez zirela. Urte horietan, laugarren eta ondorengo ordenek 200 jaiotza inguruko zifrak dituzte, eta horrek ia garrantzirik gabe uzten zituen. Lehen eta bigarren mailako jaiotzen kopuruak ere behera egin zuen 1978 eta 2020 artean, baina proportzio txikiagoetan, % 52,1 inguru.

2020an erditzeen % 3,8 anizkoitza zen, hau da, bi haur edo gehiago jaiotzen ziren aldi berean. Ehuneko horrek gora egin du 1986tik, urte hartan % 1,9 baitzen, eta amatasunaren adina gero eta handiagoa denean, ugalkortasun biologikoa murrizten denean eta ernaltzeko tratamendu klinikoetara jotzen denean azal daiteke, erditze anizkoitzak izateko probabilitatea handituz.

**15. grafikoa. Jaiotzen bilakaera, jaiotzaren ordena kontuan hartuta. 1976-2020.**



Egoera horren beste ondorio bat da haurdunaldiko asteak 35 edo gutxiagokoak ziren erditzeak 1990eko % 1,5etik 2020ko % 3,6ra igo direla, eta 42 aste edo gehiagoko erditzeak, lehen urtean % 5,6 zirenak, hogeita hamabi urte geroago % 0,5 baino ez direla.


### 3. HERIOTZAK

Heriotzen Estatistikak erakusten duenez, Euskal AEko heriotza-tasa gordinak (heriotzak mila biztanleko) bezala, Euskal AEko biztanleen batez besteko bizitza-luzerak gora egin du etengabe. Hau da, 65 urte eta gehiagoko biztanleriaren hazkundera aurreko aldietan izandako hilkortasunaren murrizketaren emaitza da, eta, aldi berean, adineko adinetako heriotzen egungo gorakadaren arrazoiak, hiltzeko probabilitate handiena duten adinetako pertsonen kopuruak gora egin baitu pixkanaka.

#### 3.1. HERIOTZEN BILAKAERA

Erkidego osoan, heriotzen kopurua % 70,1 handitu da 1980tik 2020ra, baina kontuan hartu behar da urte honetan COVID-19aren ondorioz izan den gainhilkortasuna, baina gertatu izan ez balitz, igoera % 48,4koa izango litzateke. Heriotzen guztizkoarekin, 2020an, hilkortasun-tasa ‰ 11koa izan zen, eta ‰ 9,6ra jaitsiko litzateke COVID-19aren ondoriozko heriotzak deskontatuz gero. 2019arekin alderatuta, heriotzen guztizkoa % 12,5 igo da, 1976tik 1989tik 1990era izan den hazkunderik handiena halako bi. Igoera negatiboa izango zen (% -1,9koa) birusak eragindako heriotzak kontuan hartuko ez balira.

16. grafikoa. Hilkortasun-tasen bilakaera (‰). 1980-2020



Bizkaian kopuru absolutuetan alderik handiena badago ere egoera errealaren eta hipotetikoaren artean 2020an, 13.243 heriotzatik 11.614ra, 1980tik azken urtera bitartean gertatutako heriotzen gorakada beste bi lurraldeetan baino txikiagoa izan da: % 56,6tik % 37,4ra; alegia, COVID-19ak eragindako heriotzekin horiek gabeko zifretara. Heriotza-tasa gordinetan, Bizkaia ia beti egon da beste bi lurraldeen gainetik, batez ere 2001etik aurrera, eta, COVID-19ak eragindako heriotzak kontuan hartu ez arren, ‰ 10etik gorakoa da tasa, benetakoa ‰ 11,5era iritsiz. Araban 1980tik 2020ra bitartean gertatutako heriotzen kopurua bikoiztu egin da heriotzen guztizkoarekin, eta % 73,8ko igoera izango litzateke COVID-19ak eragindako heriotzak zenbatuko ez balira. Aitzitik, 2020ko heriotza-tasak erkidegoko baxuenak dira; zehazki, 9,9koa litzateke heriotzen guztizkoarekin, eta ‰ 8,1ekoa COVID-19ak eragindakoeekin.

Gipuzkoak bere heriotza-tasa gordinetan Erkidego osokoaren antzekotasun handiagoa du, izan ere, heriotzak ‰ 10,8 izan dira, bi hamarren gutxiago, eta COVID-19rik gabe ‰ 9,6, hamarren bat gutxiago. Guztira 7.738 heriotza izan dira, 1980an baino % 81,6 gehiago, eta COVID-19ak eragindako gainhilkortasuna gertatu izan ez balitz, kopuru hori 872 heriotzatan murriztuko litzateke, eta horrek % 61,1eko igoera ekarriko luke 1980 eta 2020 artean.

Europar Batasun osoan, COVID-19aren pandemiak heriotza-tasa gordinean ere izan zuen eragina; izan ere, ‰ 11,6ra iritsi zen 2020an, zehazki, aurreko urtean baino 1,2 puntu gehiago. 2019-2020 aldian heriotza-tasak 1,5 puntu baino gehiago igo dituzten Europako herrialde gehienak Europako ekialdekoak dira, baina talde horretan daude Italia eta Espainia ere, 1,9 eta 1,6 puntuko aldearekin, hurrenez hurren. Bi herrialde horietan, gainhilkortasuna 2019 eta 2020 artean, hau da, COVID-19ak eragindako heriotzen kopuruaren hazkundera, % 18,4koa izan zen Espainian eta % 16,7koa Italian, EB osoan % 11,4koa izan zen bitartean. Euskal AEn, aldi horretako hazkundera % 12,5ekoa izan zen. Aitzitik, Eskandinaviako hiru herrialdek, Islandiak, Danimarkak eta Norvegiak, ia ez zuten heriotzarik izan COVID-19aren ondorioz, 2019tik 2020ra heriotza-kopurua % 2 baino gutxiago izan baitzen.

1980tik 2019ra bitarteko aldia kontuan hartzen badugu birusak hilkortasunean duen eragina abstraitzeko, Europako bi herrialde-talde egin daitezke, tasen bilakaeraren arabera; lehenengo taldea, Erkidegoa kokatuko litzatekeen taldea, Mediterraneoko herrialdeek eta ekialdekoek osatuko lukete, zeinetan heriotza-tasen igoera gertatu baita; bigarren taldea Europako erdialdeko eta iparraldeko herrialdeek osatuko lukete, zeinetan tasek apur bat behera egin baitute 1980tik 2019ra. Hala ere, Europa bizitzen ari den 65 urteko eta gehiagoko pertsonen kopuruaren hazkundera etorkizunean heriotza-tasa horiek herrialde guztietan handitzea eragingo du ziurrenik.

Heriotzen datuei dagokienez, bi gertaera oso nabarmenak dira biztanleriaren adin-muturretan. Lehenengoa 100 urte eta gehiagoko pertsonen heriotzen gorakada da, 1980an 17 baino ez izatetik 2020an 409 izatera igaro baitziren. Horietatik 38 COVID-19aren ondorioz hil ziren. 99 urte baino gehiago dituzten pertsona gehienak emakumeak dira; izan ere, 40 urte hauetan, ehun urtetik gorako pertsonen hamar heriotzatik ia zortzi dira. Bigarrena, haurren heriotza-tasaren jaitsiera handia da, 1980ko ‰ 14ko tasatik 2020an ‰ 2,6ra jaitsi baita, hau da, Europar Batasun osoa baino puntu bat gutxiago.

### 3.2. BIZI-ITXAROPENAREN BILAKAERA

Jaiotzako bizi-itxaropena urtebeteen edo denbora-tarte jakin batean jaiotako biztanleen bizitza-luzeraren adierazle estimatua da, une horretako adinaren arabera. 1976az geroztik, Euskal Autonomia Erkidegoko gizonen eta emakumeen bizi-itxaropenak etengabeko hazkundera izan du, eta 2019an mailarik handienetara iritsi da: 80,8 urte gizonentzat eta 86,6 urte emakumeentzat. Gizonen bizi-itxaropena hamarren bat jaitsi da 2020an 2019arekin alderatuta, eta emakumeena, berriz, 3 hamarren jaitsi da. Beherakada hori COVID-19aren pandemiak eragindako gainhilkortasunaren ondorio da. Heriotza-tasaren igoera hori gertatu izan ez balitz, bizi-itxaropena 81,3 urtera iritsiko litzateke gizonen artean eta 86,8ra emakumeen artean, hau da, 5 hamarren gehiago gizonen artean eta 2 hamarren gehiago emakumeen artean 2019an baino.

Nolanahi ere, 2019tik 2020ra bitarteko bizi-itxaropenaren beherakada hori urrun dago Espainia osoan gertatu denetik; izan ere, 1,5 urte jaitsi da bi sexuetan, eta Europar Batasuneko herrialdeetan gertatu den altuenetako bat da; izan ere, oro har, jaitsiera 0,8 urtekoa izan da gizonentzat, eta urtebetekoa emakumeentzat.

COVID-19aren pandemiak 65 urte eta gehiagoko pertsonen eragin dien arren, 2019-2020 aldian bizi-itxaropenean izan den atzerakada 0 urterekin eman dena baino txikiagoa izan da. Gizonetan ez da jaitsi (19,3 urte), eta emakumeetan (24 urte 2019an) 0,5 urte jaitsi da 2020an.


1976ko adierazleei erreparatuta (69,6 urte gizonentzat eta 76,9 emakumeentzat, hurrenez hurren), ikus daiteke emakumeen bizi-itxaropena 9,4 urte igo dela eta gizonena 11,1. Bestela esanda, gizonek 3,2 hilabete irabazi dituzte urtero, eta emakumeek 2,8 hilabete gehiago urtean. COVID-19ak eragindako heriotzarik izan ez balitz, 44 urte hauetan bizi-itxaropenaren hazkundera 9,9 urtekoa izango zen emakumeetan eta 11,7koa gizonetan, eta horien bizi-irabazia 3,4 urtekoa izango zen gizonetan, eta 2,9 hilabetekoa emakumeetan.

Bi sexuen bizi-itxaropenen arteko aldea 5,6 urtera murriztu da, 1991ko 8,6ko maximotik, batez ere heldu gazteenen heriotza-tasa handiak direla eta. Hala ere, gutxi dira hain bizi-itxaropen handia izan dezaketen herrialde garatuak, bereziki emakumeen kasuan, Japoniak bakarrik gaingitzen baitu mundu osoan.

Eskualde mailako bizi-itxaropenak 1981etik 2011ra bitarte izan duen bilakaerari buruzko azterlan bat ere egin dezakegu (azken urtea datu eskuragarriekin); ikusten da Arabako eskualdeetan erregistratutako bizi-itxaropena Bizkaikoa edo Gipuzkoakoa baino handiagoa izan dela, batez ere emakumeen kasuan, baina Bizkaiko eskualdeak izan dira 30 urte hauetan hazkunderik handienak izan dituztenak, nahiz eta balio baxuenetatik abiatzen ziren.

Gizonen artean, bizi-itxaropena gehien hazi den eskualdea Donostialdea izan da (9,1 urte), eta emakumeen artean Arabako Lautada (6,8 urte), baina 1981ean indize txikiagoak zituztelako ere bada hori. Arabako gainerako eskualdeetan hazkunde txikiak izan dira 30 urte hauetan bi sexuetan, eta ia nuluak Añanako gizonentzat.

### 17. grafikoa. Jaiotzako bizi-itxaropenaren bilakaera, sexuaren eta urteen aldearen arabera. 1980-2020



Arabako emakumeen eta gizonen bizi-itxaropena hiru lurraldeetako altuena izan da beti, baita gizonena ere, pandemia gorabehera, 2020koa (81,3 urte) 2019koa baino 0,3 urte altuagoa izan da; hala ere, emakumeen kasuan 0,7 urte jaitsi da, 86, 9 urte. COVIDa kenduta, bizi-itxaropena 82,3 urtekoa izango zen gizonentzat, eta 87,9 urtekoa emakumeentzat. Bizkaian eta Gipuzkoan, bizi-itxaropenaren jaitsiera berdina izan da bi sexuetan 2019tik 2020ra: 0,2 urte, kontuan hartuta Bizkaiak dituela indizierik baxuenak: 80,3 gizonentzat eta 86,1 emakumeentzat. Gipuzkoa Arabatik hurbilago dago, 81,1 urtera iristen baita gizonentzat eta 86,4 urtera emakumeentzat. Pandemiarik izan ez balitz, bizi-itxaropenaren igoerak ez ziren Araban bezain handiak izango bi lurralde horietan, 2019arekin alderatuta. Bizkaiko gizonen 0,4 urteetatik Gipuzkoako emakumeen 0,1 urteetara igaro baitira.

Hala eta guztiz ere, 1980-2020 aldian bizi-itxaropenak izan duen bilakaerarik garrantzitsuenak, hazkundeaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuen artean bizitzar-urteak homogeneizatzeko joera izan da. Lurralde mailan eta gizonetako artean hori agerikoa da, 1980an Araban eta Bizkaian 2,8 urteko bizi-itxaropenaren aldea izatetik 2020an urtebetekoa izatera igaro baita. Emakumeen artean ere behera egin du, baina neurri txikiagoan, urte batetik 0,5era igaro baita aldi horretan.


### 3.3. BILAKAERA, HERIOTZAREN ERAGILEEN ARABERA

Osasunaren Mundu Erakundearen Gaixotasunen eta Arazoen Nazioarteko Sailkapen Estatistikoaren arabera (10. berrikuspena), 2020an heriotzen % 25,7 tumoreek eragin dituzte (6.223 heriotza); ondoren, zirkulazio-sistemako gaixotasunek (% 23,1 eta 5.611 heriotza). Buruko eta nerbio-sistemako nahasmenduek eragindako heriotzak multzokatuz gero, hirugarren daude, heriotza guztien % 13,4 eta 3.242 heriotza. Aurten COVID-19ak eragindako heriotzak sartu dira, eta laugarren postuan jarri dira, heriotza guztien % 12,8 baitira, 3.096 hildakorekin.

Heriotza-kausek hilkortasunean duten intzidentziaren denbora-bilakaeraren analisi koherenteagoa egin ahal izateko, COVID-19aren ondoriozko heriotzak ezabatu dira, 2020an bakarrik gertatzeagatik.


18. grafikoa ikus daitekeenez, heriotza-kausen proportzioak aldatu egin dira azken 30 urteetan, batez ere zirkulazio-sistemako eta nerbio-sistemako gaixotasunetan, horietan buru-nahasmenduak sartu baitira. 1990ean, azken horiek heriotza guztien ia % 4 eragiten zuten, eta 2020an % 15,3 izatera igaro ziren. Zirkulazio-sistemako gaixotasunen garrantziak behera egin duenez, 2008az geroztik tumoreei erreleboa emateko arrazoi nagusia izateari utzi diote. Arnas aparatuko gaixotasunek, gorabehera txiki batzuekin, heriotzen % 10 inguru izaten jarraitzen dute aldi osoan, eta gainerako kausek ere beren pisua mantentzen dute, % 17 inguru.

18. grafikoa. Heriotzen bilakaera, kausen arabera (%). 1990-2020



Kanpoko kausen intzidentzia jaitsi egin da aldi horretan, 1990ean ia % 6 izatetik 2020an % 3,5 izatera. Jaitsiera hori, neurri handi batean, trafiko-istripuek eragin dute; izan ere, 1990ean kausa horrek eragindako 381 heriotzatik 2020an 55 heriotzara igaro da, eta 2014an serie osoko kopururik txikiena lortu da, 50 heriotzarekin. Horren ondorioz, suizidioa heriotzaren kanpoko lehen kausa bihurtu da 2006tik 2016ra, eta 103 suizidio izan dira aldiaren azken urtean, trafiko-istripuak baino gehiago. 2016az geroztik, ustekabeko erorikoen ondoriozko heriotzak izan dira kanpoko heriotzen lehen kausa; izan ere, gorakada handia izan dute, 1990eko 42 heriotzetatik 2018ko 167 heriotzetara igaro baitira, eta horren azalpena adinekoren pisu handiengan egon daiteke, arrazoi horiengatik hildakoen % 81 70 urte edo gehiagoko pertsonenak baitziren. 2020an, berriz ere nagusi dira suizidioak eragindako heriotzak kanpoko kausen artean, kausa horren ondorioz 184 pertsona hil baitira, baina ez da beste urte batzuetan gertatu ez den zifra bat; horrela, 2002an azken urtean baino 3 suizidio gehiago gertatu ziren.

### 19. grafikoa. Heriotzen bilakaera, generoaren eta heriotza-kausaren arabera. 1978-2020




Azkenik, nerbio-sistemako gaixotasunak eta nahasmendu mentalak nabarmendu behar dira, 1990etik hona gehien hazi direnak baitira. Urte hartan 704 pertsona hil ziren arrazoi horiengatik, baina 2020an 3.242 heriotza eragin zituzten. Endekapenezko gaixotasunen artean, kasurik adierazgarriena Alzheimer gaixotasunaren gorakada izan da, 1999tik (urte horretan hasi zen gaixotasun gisa erregistratzen) bikoiztu baino gehiago egin baita; izan ere, urte horretan 304 pertsonari eragin zien, eta 2020an 741 pertsonari. Gaixotasun-kategoria horien barruan, zahartzaroko eta zahartzaro aurreko trastorno mental organikoen taldea ere aipatu behar da, 2020an 1.722 pertsonari eragin die, eta 1999an 370i. dementziak.

Heriotzen banaketa desberdina da sexuaren arabera; izan ere, 2020an, gizonen artean, tumoreek zirkulazio-sistemako gaixotasunak gaingaitzen dituzte (heriotzen % 38,8 eta % 26,9, hurrenez hurren);

emakumeen artean, berriz, bi gaixotasun-talde horien pisuak alderantzikatu egiten dira: gaixotasun kardiobaskularrek heriotzen % 30,3 eragiten dute, eta tumoreek % 24,9.

## 20. grafikoa. Heriotzen bilakaera, generoaren eta heriotza-kausaren arabera. 1990-2020



90ean egoera zertxobait desberdina zen; izan ere, gizonen artean tumoreen eta zirkulazio-sistemako gaixotasunen arteko berdintasuna zegoen, biek % 30eko intzidentziarekin, baina tumoreen garrantzia handitu egin da heriotza-kausen artean; gainerakoek, berriz, behera egin dute edo mantendu egin dira, nerbio-sisteman eta buruko nahasmenduetan taldekatutakoak izan ezik.

Lehen esan bezala, azken horiek izugarri hazi dira 1999az geroztik; gainera, badirudi arrazoi horiek feminizatu egin direla; izan ere, dementziek eta Alzheimerren gaixotasunak eragindako heriotzetan, gehienak emakumeenak izan ziren; izan ere, 2020an, emakumeen heriotzak % 69,4 eta % 71,4 izan ziren, hurrenez hurren.

Kanpoko arrazoiaren taldean, zirkulazio-istripuek eta bere buruaz beste egiteek eragin oso nabarmena izan dute gizonezkoen artean: 1990 eta 2016 bitartean zirkulazio istripuen ondorioz hildako 5.531 pertsonetatik % 75 gizonak ziren eta aldi horretan bere buruaz beste egin zuten 4.434 pertsonetatik % 73 izan ziren gizonezkoak.

Kanpoko kausen taldean, zirkulazio-istripuek eta suizidioek eragin nabarmena dute gizonezkoen artean: 1990-2020 aldian zirkulazio-istripuz hildako 5.771 pertsonetatik % 75,1 gizonezkoak ziren, eta aldi berean izandako 5.105 suizidioetatik % 73,3k gizonezkoen generoari ere eragin zion. Ustekabeko erorketen ondoriozko heriotzetan, badirudi gehien eragiten duen biztanleriaren ezaugarria adina dela;

izan ere, % 82,1ek 70 urte edo gehiago zituzten, baina badirudi arrazoi horrek eragindakoak zahartu egin direla, 1996an adin horretako heriotzak erdiak baino gehixeago baitziren.

Zientziak aurrera egiteak erremedio eraginkorra emango balu tumoreen ondoriozko heriotzarik ez egoteko, gizonen bizi-itxaropena 4,1 urte altuagoa izango litzateke 2020an, hau da, 84,8 urtera iritsiko litzateke, baina ez luke eragin bera izango emakumeen artean, 2,8 urte irabaziko bailituzkete. Baina duela berrogei urte irabazia txikiagoa izango zen, batez ere gizonen artean, 3,1 urtetan kokatuko baitzen, 2,3 urtez emakumeetan. Hilkortasunaren kanpoko kausak desagertzeak ez luke Erkidegoko biztanleen bizitza hainbeste luzatuko; gizonen artean 0,8 urte baino ez lirateke izango, eta emakumeen artean 0,5. Baina kontuan izan behar da 1981ean 1,4 urteko igoera suposatuko zukeela gizonentzat, eta horietatik heren bat baino gehiago zirkulazio-istripuen desagertzearen ondorioz izango zela, eta 2020an % 12,5era murriztuko zela. Emakumeen artean, heriotza-kausa horiek ezabatzearen ondoriozko irabazia askoz txikiagoa da 2020an, 0,3 urte, eta horietatik zirkulazio-istripuek ez dute inolako partaidetzarik.


## 4. EZKONTZAK

Tradizioz, seme-alabak ezkontzen barruan izan dira, eta, beraz, ezkontzen kopuruak eta ezkontzeko adinak zehazten zuten emakumeen belaunaldien ugalkortasuna; izan ere, ezkontza gutxiago edo beranduago, metodo antikonzeptibo eraginkorrik gabe, jaiotzen kopurua txikiagoa izatea eragiten zuten. Hala eta guztiz ere, Euskal AEn, jaiotzen % 53,1 ezkontutako bikoteen artean gertatzen da oraindik, eta, beraz, ezkontzen azterketak garrantzitsua izaten jarraitzen du jaiotza-tasa eta demografia aztertzeko.

### 4.1. EZKONTZEN BILAKAERA

COVID-19ari aurre egiteko ezarritako pertsonen mugimenduen murrizketen ondorioz, ezkontza-kopurua nabarmen jaitsi da 2020an 3.750era aurreko urteko 6.912tik, hau da, % 45,7 gutxiago termino erlatiboetan, eta, beraz, ezkontza-tasa gordina ‰ 1,7an kokatu zen, aurreko urteko ‰ 3,2aren aldean. Euskal AEko ezkontza-tasa beti izan da inguruko herrialdeetako baina txikiagoa, baina aldea handitu egin da 2020an; Europar Batasun osoko ezkontza-tasa gordina ‰ 3,2 izan da. Herrialdeka, nabarmenezkoa da Irlandako tasen jaitsiera azken bi urteetan, ‰ 4,1etik ‰ 1,9ra igaro baita. Espainiak ‰ 1,9ko tasa zuen 2020an, eta ‰ 3,5ekoa zen aurreko urtean. Portugal, 2019ko ‰ 3,2tik ‰ 1,8ra jaitsi zen hurrengo urtean, eta Italia da bi urteetan erkidegokoak baina tasarik txikienak dituen herrialdea: ‰ 1,6 2020an eta ‰ 3,1 2019an.

21. grafikoa. Ezkontza-tasa gordinen bilakaera. 1978-2020



Ezkontzen kopuruaren eta ezkontza-tasa gordinen bilakaeran, hiru aldi bereizi izan dira azken 41 urteetan, 2020. urtea ez baita kontuan hartu, seriearen adierazgarria ez delako. 1978tik 1985era bat-bateko jaitsiera gertatu zen, ezkontzetan % 37,5 gutxiago eta tasetan % 38 gutxiago. Bigarren aldia 1985etik 2004ra bitartekoa da, orduan 9.800 jaiotza inguru izan baitziren, eta 2000. urtean 10.500 izan ziren; ezkontza-tasa, berriz, % 4,7 ingurukoa izan zen. Azken aldian, 2004-2019 aldian, ezkontzen kopuruak % 31,2 egin du behera eta % 33,1 ezkontza-tasek, eta, 2013tik 2017ra ezkontzak zertxobait egonkortsu diren arren, 2018 eta 2019ko zifrak adierazten du etorkizunean beheranzko joera dagoela, bi faktoreen ondorioz: izatezko bikoteen gorakada eta pertsonen kopuruaren uzkurdua ezkontza gehienak gertatzen diren belaunaldietan.

1978tik, hiru lurraldeetako ezkontzen bilakaerek antzeko ereduak jarraitu dituzte, baina intentsitate ezberdinarekin. Arabak hasieran ezkontza-tasa gordin altuenak izan zituen hiru lurralde historikoetatik, eta, aldiaren amaieran, txikiena, 38 urte horietan ia % 59,1 murriztu baitzen lurralde horretako tasa; Gipuzkoak, aldiz, lehenengo 12 urteetan tasarik txikiak izan zituen eta 2001. urteaz gero altuenak, aldi horretan % 45,2 murriztu zen bere tasa, 2001. urteaz geroztik, eta aldi horretan % 43,9ko murrizketa izan du.

Lehen ezkontzen indizeari erreparatzen badiogu, hau da, ezkontza-indize sintetikoa (EIS) izenekoari, 2019an dugu gizonen % 46,7 eta emakumeen % 50,5 ezkonduko liratekeela urte horretako ezkontza-baldintzek mugarik gabe jarraituko balute; horrek esan nahi du jaitsiera handia izan dela 2006ko indizeetik (% 53,8 eta % 58,5, hurrenez hurren). Beste ikuspuntutik begiratuta, datu horiek adierazten dute gizonen erdiak baino gehiago eta emakumeen erdiak baino zertxobait gutxiago ez liratekeela inoiz ezkonduko. Egoera hori duela 40 urteko egoeratik oso urrun dago, orduan pertsonen ia % 100 ezkontzen baitzen. 2020ko indizeei erreparatuko bagenie, egoera larriagoa izango litzateke: gizonen heren bat eta emakumeen % 39 baino ez lirateke ezkonduko.

Eustaten Inkesta Demografikoa aukera ematen du ezkontza-tasa aztertzeko belaunaldien ikuspegitik, hau da, bost urteko talde berean jaiotako pertsonen ikuspegitik, eta egiaztatzen du gizonen artean, behin betiko ezkongabeen ehunekorik txikiena (% 4) 1921 eta 1925 bitartean jaiotako artean ikusi zela; emakumeen artean, berriz, 1936tik 1940ra bitarteko bosturtekoan jaiotako belaunaldietan ikusi zen ezkontza-tasa hori % 36an, eta, orduetik aurrera, % 27an. Orduetik aurrera, ehuneko hori handitu egin da, eta % 36ra iritsi da gizonen kasuan, eta % 27ra emakumeen kasuan, azken belaunaldietan, ezkontza-historia osatu dutela kontsidera baitaiteke, hau da, 1976tik 1980ra bitartekoetan

Horrek ez du esan nahi bikoteen eraketa neurri berean murriztu denik; izan ere, 1976tik 1980ra bitartean jaiotako belaunaldietan, bikotekidearekin bizi diren belaunaldien % 17k izatezko elkarketetan egiten dute, eta 20 urte lehenago jaiotako belaunaldietan, berriz, % 2,3k. Azpimarratzekoa da, halaber, izatezko bikoteen ugalkortasuna nahiko txikia dela; izan ere, 2021ean, emakumeen % 56k bakarrik ditu seme-alabak, eta, beraz, seme-alaben batez besteko kopurua ez da 1era iristen.

Eskualdeen arabera ezkontza-tasaren bilakaera 1980tik 2010era bitarte ikusi ahal izan da, azken urte horretan lurralde horretan eskuragarri dauden datuekin, eta nabarmentzen den lehen gauza da 1980an Arratia-Nerbioi eskualdeak zituela ezkontza-indizearik altuenak, bai gizonentzat, bai emakumeentzat, 15 urtetik gorako ia % 90 ezkondu baitzen. Beste muturrean Debabarrena zegoen, % 50etik beherako ehunekoekin; beraz, desberdintasun handia dago eskualdeen arteko ezkontza-portaeran. Hogeita hamar urte geroago, alde horiek asko murriztu dira, eskualde guztietan ezkontza-tasak jaitsi direlako; maximoak eta minimoak Debagoienean (% 60 baino gehiago) eta Arabako Ibarretan (% 40 baino gutxiago) eman dira, hurrenez hurren.


Esanguratsua da 1980an ezkontza-tasa txikia zuten eskualdeek (Debarrena, Debagoiena edo Tolosaldea), ezkontza-tasaren beherakadaren bilakaera orokorrekin bat etorri beharrean, eutsi egin diotela gainerako eskualdeen aldean ezkontza-tasaren intentsitateari 2010ean. Horrela, 1980an, Arabako Lautadaren ezkontza-tasa Debarrenarena baino % 40 handiagoa zen arren, 2010ean eskualde horretan bizi zirenak bertan baino % 25 gehiago ezkondu ziren.

